

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 27an hartutako erabakiaren laburpena. Horren bidez, Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdia eta berriazko oinarriak onetsi ziren 2024rako

BDNS (Identif.): 753791.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/753791>).

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta daitezke.

Lehen. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridikoak, baldintza hauek betetzen badituzte: berrogeita hamar langile baino gutxiago izatea; urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euro ez gainditzea; aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez izatea bertan; diruz lagun daitekeen kontzepturen bateko inbertsioak egitea Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako lokal batean, bai jendearentzat irekita eta lur-arra-sean kokatuta dagoen lokal batean, merkataritzaren ohiko ordutegiarekin, bai azoketan nahiz merkataritza-zentro edo -galeria pribatuetan, eta ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda egotea:

– 64: establezimendu iraunkorretan egiten den jangaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza (salbuespenak: 646: tabako-gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka; eta 647.5: janari eta edarien horniketa "tabakoa salbu" makina automatikoen bitartez).

– 65: janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbuespenak: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

– 662.2: era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

– 671, 672 eta 673: elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

– 676: elikadura-zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

– 677.9: jatetxeei dagozkien beste elikadura-zerbitzu batzuk.

– 681, 682, 683 eta 684: ostatu-zerbitzuak, hotel, motel, pentsio, ostatu, apopilo-etxe eta apartamentu-hoteletan.

- 691.1: etxeko tresna elektrikoen konponketa.
- 691.9: beste kontsumo-ondasun batzuen konponketa (b.i.s.g).
- 755: bidaia-agentziak, 755.1 izan ezik.
- 971.3: arropak pasaratzea eta konpontzea.
- 972: ile-apaindegiko eta edertasuneko zerbitzuak.

Deialditik kanpo geratzen dira industrialdeetan eta zerbitzuguneetan (gasolindegia) dauden negozioak, eta gaueko ostalaritzako eta kolektibitateei catering-zerbitzuak ematekoak, edozein delarik horien kokagunea.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorretako ekonomia-jarduera sustatzea, 2023ko martxoaren 11tik deialdia ALHAOn argitaratzen den arte arlo hauetan egindako inbertsioak diruz lagunduz: merkataritza-lokala ezarri eta modernizatzea obrak, mahaitxo-terrazak (itxitura eduki ala ez) instalatu, eraberritu eta egokitzea eta lokalerako ekipamendua erostea.

Aurkezten diren proiektuek diruz laguntzeko gutxieneko inbertsio garbia izan beharko dute (BEZik gabe):

2.000,00 eurokoa, EJZko 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972. epigrafeetan.

4.000,00 eurokoa, EJZko 67. epigrafean.

8.000,00 eurokoa, EJZko 68. epigrafean.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udaltzako Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onspena ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zk.), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak 2024rako. udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek 350.000,00 euroko zuzkidura du, 2024ko udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura (merkataritza eta ostalaritzarako laguntzak izenekoa). Horietatik, 225.000,00 euro EJZren 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 epigrafeetako negozio-jardueretako inbertsioak diruz laguntzeko baliatuko da, eta 125.000,00 euro, EJZren 67 eta 68 epigrafeetako jardueretarako.

Laguntzen zenbatekoa, gehienez:

A. EJZren 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 zenbakiko epigrafeetarako):

20.000,00 euro, auzo hauetan kokatutako proiektuetarako: Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea, Lovaina, Zaramaga eta Judimendi (II. eranskina).

15.000,00 euro, II. eranskinean adierazitako leketan ez dauden proiektuetarako.

B. EJZren 67 eta 68 epigrafeetarako:

10.000,00 euro, auzo hauetan kokatutako proiektuetarako: Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea, Lovaina, Zaramaga eta Judimendi (II. eranskina).

7.000,00 euro, II. eranskinean adierazitako lekuetan ez dauden proiektuetarako.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun balioduneko izango da, oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 3a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ